

- ASTEKO GAIA -

Euskaltzaindia

Profesionalak, emaitzak bizkortzeko

90 urte bizkarrean, eta bi erronka nagusi orain: egindako lanak sarean zintzilikatzea herritarren eskura dena egon dadin eta barne funtzionamendua aldatzea, hainbeste aldiz kritikatu zaionari itzulia emateko, emaitzak azkarrago plazaratzeko.

Onintza Irureta

Argazkiak: Euskaltzaindia



90 URTE BETE DITU Euskaltzaindiak. Ia mendea egin duen honetan, orainari eta geroari begira jarri gara.

Andres Urrutia euskaltzainburuaren ahotik entzun dugu nora begira dagoen erakundea, non duen jomuga. Internet eta egitasmo bidezko funtzionamendua entzungo dizkiozue hitzetik hortzera Urrutiari. Gizartearen beharretatik urrun ibili fama du erakundeak, erabakiak motel hartzearena. Topikoak omen, eta topikoak baino errealtatea ongi ezagutzen ez duenaren pertzepzioa dela dio euskaltzainburuak, samin puntuarekin. Beraz, lanak azkarrago egin eta emaitzak sarean zintzilikatu.

Euskaltzaindiak azken urteotan hartu duen konpromisoetako bat horixe izan da, barne funtzionamendua aldatzea, horrek lanen abiaduran eragina izango duelakoan. 1970. urtean, Luis Villasante euskaltzainburuak lan moldea aldatu zuen; ordura arte urtean behin biltzen ziren osoko bilkuran euskaltzainak eta hainbat urgazle. Villasantek batzordeak jarri zituen abian. Batzorde bakoitzak lan ildo bat zuen eta hilean behin edo bi hilean behin elkartzen ziren. Azken urteotan emandako jauzia bestelakoa da. Osoko bilkura eta batzordeak mantenduz egitasmoak sortu dira, alegia, lan zehatz bakoitza lantalde batek hartu du eta egunero ari dira horretan lanean. Hau da, profesionalak dira egitasmoetan lanean ari direnak. Egitasmo bakoitzaren buru euskaltzain bat da. Erabakitzeke ahalmena berriz, batzordeek dute subiranotasun hori osoko bilkuraren eskutik jaso dutelarik.

Ondorioa bistakoa da, lanak agudo egiten dira eta emaitzak lehenago datoz. Urrutiak hala dio: “Oraintxe ari gara buru-belarri egitasmoen sistema honekin. Egitasmoek eta teknologia berriek, konbinatuta, ematen dute bidea arinago, errazago eta eskuragarriago izateko gizartearen aurrean eta euskalgintzaren aurrean”. Egitasmoen funtzionamendua kontuan hartuta ari dira egiten esate baterako ondoko lanak: Orotariko Euskal Hiztegia, EEBS (Egungo Euskararen Bilketan-lan Sistematikoa), Euskaltzaindiaren Hiztegia, Lexikoaren Behatokia...

Euskalgintzaren behatokia

“Alfer-alferrik ariko da Euskaltzaindia baldin eta ez badaki euskalgintzaren barruan zer dabilen”. Euskaltzainburuak sinergiara egiten duen deia da. Erakundeak baditu harremanak euskalgintzako hainbat elkarte eta eragilerekin, hitzarmenak eginak ditu, baina ez dago ezer egituratua. Euskaltzaindiaren nahia da harreman hori sistematiza-

Euskaltzaindiaren nahia da euskalgintzarekiko harremana sistematizatzea, aldiro termometroa jartzea

tzea eta aldiro euskalgintzak erakundeari termometroa jartzea. Esate baterako, normatibizazioaren ikuspegitik erakundeak jakin nahiko luke ea hartutako erabakiak egokiak diren ala ez, bide onetik doan ala ez. Normatibizazioaz gaindi, euskararen normalizazio bidean elkarlanerako behatokia osatu nahi du.

Euskararen Historia Soziala

Soziolinguistikaren alorrean, Euskaltzaindiak orain arte esku artean izan duen proiekturik asmo handikoena da Joanes Etxeberri egitasmoa. 2007ko irailean jarri zen abian lantaldea, Mikel Zalbide euskaltzainaren zuzendaritzapean. Joseba Intxausti zuzendari orokorrak honela definitu du lana: “Historia sozialaz dihardu; hortaz, ez da Linguistika edo Filologia, ez da Soziologia soilak; gizarteko historia egin nahi du eta iraganetik denboran zehar datozen edukiak bilatu behar ditu, ikertu, ordenatu, aurkeztu eta hedatu”.

Azpitarratzeko beste egitasmo bat Euskararen Herri Hizkeren Atlas da. 1987tik 1992ra bitartean Euskal Herriko 145 herritan grabaketak egin zituzten, eta laster atlasaren lehen bi argitalpenak plazaratuko dituzte.

Koldo Mitxelenaren gidaritzapean hasitako Orotariko Euskal Hiztegiaren lehen argitalpena 1987an egin zuten eta azkena 2005ean. Oraintsu jarri dute osorik sarean. Hemendik aurrera eguneratzen joango dira. Hiztegi Batua ere ez da bere horretan gertatuko, orain dituen 20.000 hitzetatik 40.000rako jauzia egingo du. Hurrengo pausoa Euskaltzaindiaren Hiztegia izango da, Hiztegi Batuko hitzei definizioak jartzea, euskara-euskara hiztegia, alegia.

Ingurukoei galdezka

Euskaltzaindiak inkesta egin du erakunde barneko kideen artean eta kanpoko, hau da, euskalgintzako kideen artean. Galdeketa helburua da euskalgintzaren iritzia jasotzea, hots, gizarteak nola ikusten duen erakundea. Inkestaren emaitzen aurrerapena dago *Euskaltzaindia. Ekin eta jarrai* liburuan. Adierazgarria da ikustea nola erakunde barneko kideek eta kanpokoek oso antzeko iritzia duten Euskaltzaindiaz. Urrutiak hala dio: “Askok Euskaltzaindiaz hitz egiterakoan topikoetatik ihes egiteko zailtasunak izaten dituzte. Galdeketen emaitzetan badago konstatazio bat, barrukoek eta ingurukoek ikusten dute nondik nora doazen Euskaltzaindiaren lerroak eta ikusten dituzte argi-lunak, jakina”. n

ANDRES URRUTIA, euskaltzainburua

“Euskaltzaindia izan daiteke Euskal Herri osoa hartzen duen foroa”

IÑIGO AZKONA

Urteurrena kari, hedabideetan irakurri dut ondo-ko: hitz egiten eta idazten den euskara (ondo ala gaizki) gero eta urrutiago dago Euskaltzaindiaren kezketatik.

Ezjakintasuna ere badago. Ahaztu egin zaigu euskara batua zertarako sortu zen, idatzia izateko. Hortik etorri dira bestelako kontuak, ea euskara batua izan behar den ahozko euskara eta beste... Horretaz eztabaidatu dezakegu.

Normatibazioaren ikuspegitik garai batean jarri ziren zimentarriak eta orain teilatua ipintzea eskatzen digu. Teilatua ipintzeko alfer-alferrik ibiliko zara baldin eta tarteko solairuak jartzen ez badituzu. Beharbada momentu honetan esker gaiztoko asto-lana eskatzen du solairu horiek jartzeak.

Kaleko euskaratik hurbil-kanpo? Euskaltzaindia beste plano batean dago. Bizirik dagoena kaleko euskara da, horrek ez du kentzen euskara idatzia. Euskararen munduan mailak ez dira ondo bereizten, badirudi kaleko euskara dela onena... Ez, barkatu, zertarako den. Kaleko euskara onena da funtzio batzuetarako eta idatzia beste batzuetarako.

Galdera hau ere irakurri dut: Euskaltzaindiari berehalako jarraipen akritikoak euskarari laguntzen dio ala oztopoa da?

Akritikotasuna? Ez nuke esango halakorik dagoenik. Akritikotasuna



“Badaukat arantza bat: nola lortu urgazleek gure zereginetan beste era batean parte hartzea”.

egongo balitz bake ederra izango genuke eta ez dut uste bake eder hori behar dugunik. Akritikotasuna baino, esango nuke gizartea bera konturatu dela euskara aurrera atera nahi badugu, nonbaiten erreferentzia bat izan behar dugula. Nonbait hori, gure kasuan, Euskaltzaindia da. Orain dela 90 urte sortu zuten helburu horrekin, badi-rudi bere testigantza eman duela eta bere lana egiten ari dela. Zergatik ez baliatu hori? Zentzurik zabalenean diot: Euskal Herri osoa hartzen duen erakunde bakarra da, euskalki eta kaleko euskara desberdinen ordezkariak hartzen dituen, normatibazio eta normalizazioan ari da...

Euskaltzain taldeak hainbat alorretako adituak bildu ditu azken urteotan. Zein alorretakoak gehituko zenituzke?

Ez dut uste beste eraberritzerik egongo denik datozen hamar-hamabost urtetan. Baina badaukat

arantza bat: nola lortu urgazleek gure zereginetan beste era batean parte hartzea. Urgazleek hartzen dute parte batzordeetan, proiektuetan... baina beharbada beste zerbait eskaini behar zaie, agian Euskaltzaindiak hartzen dituen erabakietan parte hartzeko aukera eman behar diegu. Oso zaila da, 200dik gora baitira, baina mekanismo batzuk asmatu behar ditugu.

Euskaltzaindiaren inguruko inkestan, datozen urteetan garrantzia zeri eman galdetu duzue. Lehen hiru postuetan ondokoak ageri dira: euskararen erabilera sustatzea, gizartearen espresio bidea izatea, euskaldunen eskubideak bermatzea.

Neurri handi batean normala da. Euskaltzaindiak hizkuntzaren normatibazio aldetik egin duena bideratuta ikusten da, nahiz eta oraindik asko falta. Momentu honetan gizartearen kezka hor dago, erabilera sustatzean. Normatibazioak gurean pisu handia izan du, eta hori ahaztu gabe, normalizazio bidean joan behar dugu, modurik zabalenean ulertuta. Esate baterako, eskubideak bermatzea aipatu duzu, badakigu badi-rela gobernu batzuk hizkuntza politikaren kezka eta ardura dutenak, horretarako aukeratuak izan dira. Alabaina, badakigu Euskaltzaindia izan daitekeela Euskal Herri osoa hartzen duen foroa.

Babeslea: Arabako Foru Aldundia



Euskaltzainei galdezka

1. Zertan ikusi zenuen herren erakundea euskaltzain egin zintuztenean?
2. Zein indargune ditu Euskaltzaindiak?

SAGRARIO ALEMAN

Ettxaleku, 1952, Arturo Campion euskaltegiko zuzendaria. 2007tik euskaltzain



1. Igoal barnera sartutakoan baino, aurretik ikusten nuena esan beharko nuke. Barnean sartu baino lehen iritzi bat dugu eta gero ohartzen gara beste zer-bait ere badela. Hori bera, irudia alde batera joana zegoela: Euskaltzaindiaren bi egitekoetatik bat, estatusarena (hizkuntza babestea, sustatzea...), ez dela hainbeste ikusten. Ikusten dena beste aldea da, corpusarena. Azken batean, biak oso loturik daude. Corpusak funtzionatu dezan, euskarak beharrezkoa du erabilera, sustatzea... Batez ere, kanpora begira, arauemaile gisa ikusten da.

Garai batean eginak zituen zenbait pauso, Euskaltzaindia izan zen alfabetatze mugimendua sortu zuena, bertso txapelketak... baina gero ematen zuen beste alor horrek (arautzeak, ikerketak...) indar handiagoa hartu zuela eta besteari gailendu zitzaioela. Egitekoa inportantea zen momentu batean, hizkuntza egokitzea. Batzuek hor ere okerra izan zitekeen, mantsoegi

zihoala. Beste bat da ea azkarrago joan zitekeen. Badi-ra eskasia batzuk, baina aldekoak ere baziren, mantsoegi egitea akatsa da? Neurri batean bai, baina aldi berean azkarregi egitea ere izan zitekeen akatsa. Oreak hori mantentzea batzuetan ez zen erraza.

2. Euskal Herri osoko erakundea da. Administrazioen, euskalgintzaren eta orokorrean herritarren aldetik aintzat hartua den instituzioa da.

Orain, Euskaltzaindia oreka ere bilatzen ari da, ez irudi aldetik bakarrik, baizik eta halabeharrez albo batera utziak egon zitezkeen hainbat alor berreskuratzen ari da.

Batzordeetan jende asko du oso prestatua, trebea eta langile gaitza, bai euskaltzain osoak, urgazleak eta bestelako langileak.

Euskaltzaindia euskal munduko hainbat talderekin eta egiten ari den hitzarmenak interesgarriak dira. Bere egitekoa da erne egotea euskararen munduan gertatzen den guztiari, askotan berak egitea baino gehiago da beste taldeen lana babestea, lan horien berri izatea eta gogoeta egitea.

ANDONI SAGARNA

Donostia, 1947, I + G + b arloko zuzendaria (Elkar). 2006tik euskaltzain



1. Duela hiru urte euskaltzain izendatu nindutenean, Euskaltzaindia bi alderditatik ikusten nuen bereziki bizkortu beharrean: batetik, araugintza motel zihoala iruditzen zitzaidan, eta bestetik, gizartearekiko harremana areagotu behar zela. Ordutik hona aurrerapen interesgarriak egin dituela uste dut. Hiztegi Batuko formak erabakitzeko prozedura berria jarri dugu abian. Gauza guztiak puntuz puntu hileroko Osoko Bilkuretan eztabaidatu eta erabaki beharrean, orain Batzorde Ahaldundu batzuk ditugu, lanak asko bizkortzen ari direnak eta horrela epe jakinei begira ari gara lanean. Lehengo abiaduran urte asko behar izango genituen Hiztegi Batua 20.000 formatik 40.000ra eramateko, eta Euskaltzaindiaren Hiztegia oso urrun ikusten genuen. Hiztegi Batuaren bigarren itzuliak eta Euskaltzaindiaren Hiztegiak 2012an osatuta egon behar dute. Erronka handia da, baina buru-belarri horretan gabilta.

Edukiak gizarteratzeko ere ahalegin handia egiten ari gara. Euskaltzaindiaren webgunea asko berritu da,

Plazaberrri aldizkariak blog itxura hartu du, edukiak formatu digitalean erabiltzaileen eskura jartzeko ahalegin handia egiten ari gara. Une honetan edukien izarretako bat Orotariko Euskal Hiztegia formatu digitalean da. Mozilla Firefox nabigatzailearen Euskalbar osagarriaren bitartez linean kontsulta daiteke eta PDF formatuan norberak bere makinan izan dezake, testu osoko bilaketa egiteko aukerarekin.

2. Euskaltzaindiak duen altxorrik preziatuena gizarteak dion begirunea da, eta ez begirune pasiboa soilik, begirune aktiboa ere bai. Azken berrogei urte honetan euskarak izan duen eraldakuntzan, aberastean, Euskaltzaindiak izan du lidergoa, baina gizarteak gauzatu du gaur dugun euskara batua, unibertsitateetan, komunikabideetan, ikastetxeetan, herri-administrazioan edo enpresetan erabiltzeko gaituta dagoena. Euskaltzaindia oso eskertuta dago gizarteak egin dion harrerarekin. Altxor hori, ordea, gehiago landu behar dugu. Nire ustez, erabilerarekin lotutako jarduera gehiago bultzatu behar ditugu.

JOSEBA ANDONI LAKARRA

Arratzu, 1962, EHUKO irakaslea. 2007tik euskaltzain



1. Ez dut egin Euskaltzaindiaren ebaluaketa orokorrik; horretarako beste jenderik eta bestelakorik beharko litzateke, jakina. Nik, gehienez ere —hemen naizenez gero zerbait egin beharko—, neure prestakuntza, ibilbide edo interesen arabera zer gara litekeen eta nik zertan lagun nezakeen pentsatu izan dut. Uste dut, bestalde, nire

bila etorri zirenek bazuketela dagoeneko ideiarekin bat niregandik itxaron zezaketenez.

Hortaz, esango nuke Euskaltzaindiak, Jagon Saila ahaztu ez ahuldu gabe, Iker Saila garatu behar lukeela hainbat garaitan egin den baino gehiago; areago, alderdi horrek eman diola Euskaltzaindiari (Azkuek eta Mitxelenak, laburtzearen) duen ospearen zati on bat. Are gehiago, nago ikerketa jardun sakon eta zabala oinarri izan gabe Jagon Saila bere egiteko gehienetan askozaz kaxkarrago arituko litzatekeela eta horren adibideak lehen eta orain bereon ditugu, Hiztegi Batutik has eta toponimiaren normalizazioan, grafiaren azken puntuetan nahiz ahoskera

batuaren lehen urratsetan.

Ikerketa horren barruan, filologian eta hizkuntzalaritza diakronikoan zer aitzinatu badela deritzot, eta are erakundearen barnean aitzinatu beharrik ere, erdi-ahazturik izan den “Euskararen lekukoak” berpiztuaz edota hitzen jatorri eta historian, demagun, eta horietan nahi nuke —besterekin batera— ahal dudantxoa egin.

2. Euskaltzaindiak indar eta indargune asko du. Batetik, Euskal Herri osoan beste erakunde gutxi duen harrera eta abegi ona; era askotako jendeak bere Akademiatzat du aspaldidanik eta horrek era askotarako erlazio eta elkarlanak ahalbidetzen ditu Euskaltzaindiaren egitekoak burutzeko.

Gainetik, erakundearen beraren jarduna eta historia dira gu guztiontzat altxor eta bide-erakusle bikain, beti hasten bagina bezala ez aritzeko. Azkenik, hainbat gogoeta, ekintza, talde eta erakunde sortu da azken 90 urteotan euskara ikertzeko eta sustatzeko; batzuk oraindik ez dira itzali eta, beraz, ez gaude bakarrik eta horien artean bat baino gehiago izan bide litezke lagun ez eze hobetzeko akuilu ere.

PATXI URIBARREN

Aramaio, 1942, itzultzailea. 2008tik euskaltzain



1. Aspaldidanik ezagutu izan ditut Euskaltzaindiaren zenbait lan-eremu, beti hurbilean lanean ibili izan naizelako. Ezagutzen nituen batzorde gehienek asmoak, baita egin bidean zituzten proiektuak ere.

Enrike Knör jaunaren ordezkari izateko proposamena egin zidatenean, argi neukan nire lanak batez ere lexikologia alorrari loturikoa izan behar zuela. Batez ere, hiztegi batuko lanari abiada handiagoa eman beharra ikusten nuen.

Iaz lau urtetarako berriztatu zen zuzendaritzak bi urtetarako programa zehazteko jardunaldi batzuk antolatu zituen Urkiolan.

Azken bi urtetan egindako lana zehatz aztertzeaz gainera, bi urtetako helburuak eta garatzeko baliabideak eta epeak zehaztu ziren. Bi batzorde berezi onartu ziren: Hiztegi Batua (2. itzulia) Batzorde Ahaldundua hiztegi alorreko erabakiak hartzea areagotzeko, eta Euskaltzaindiaren hiztegia. Adierak eta adibideak

batzorde ahaldundua definiziozko hiztegia egiten ari diren lana errazteko.

Beste zenbait batzorderen lana ere areagotzea erabaki zen, teknika berriek gure esku jarri dituzten abantailak baliatuz. Azken sei hilabete hauetan hainbat emaitza eder ikusi izan ditugu, Euskaltzaindiak informatika bidezko eskaintzetan izugarritzko urratsak eman dituelarik.

2. Indargune nagusiak aipaturiko bi batzorde ahaldunduak eta informatika alorra direla uste dut. Bi urteren buruan beste 12.000 hitz inguru normalizatuko dira, eta lehen definiziozko hiztegi ofiziala kaleratuko. Bestalde, Euskaltzaindia, informatika bidez orain arte egindako lanak jendearen esku jartzen ari da.

Hainbat batzordek eta lantaldek dihardute etengabeki ikerketa-lanak burutzen. Lan ugari horien bidez euskararen aberaste-bideak areagotuko dira.

Euskaltzainon artean, nork bere gaitasunak dituen, bakoitzak bere jakituria-alorrean ahalik eta lanik sakonena eta ugariena egitea bilatu behar da nire ustez. Uste nuen baino lan-esparru ugariago aurkitu dut. Nahi duenak badu aukerarik.